



# piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 50. alea 2002ko ekainaren 1a



**50 ale  
1000 bizipen**



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**



**GOL, S.A. Industriak**

Sagar Erreka, 19 45 PK

20590 SORALUZE

Tfnoa. 943 75 21 00 / <http://www.gol.es>

## **TXOKO KAFETEGIA**



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarran 22 behea, telf: 943751789



**Electricidad LAU, C.B.**

MONTAJES - INSTALACIONES INDUSTRIALES  
BOBINADOS - AUTOMATISMOS - REPARACIONES

Barrio Olea, 3 bajo  
Tel. 75 12 34

20950 SORALUZE

**ARRANO**  
*tabernia*

*“Giro euskalduna eta sanua”*

**ETORRI ETA GOZATU**

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



**etxera**

Telefonia 75 24 09

## **Lakuesta**

**Optika**



**Ikusmen arazozen frogak eta argi-  
bideak**

**Argazkiak errebelatzen ditugu**

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze

Tfnoa 943 75 30 59





## Urrundik heldu naiz luze ibilita

MAIDER GABILONDO

**K**aixo lagunok:

Badira bi urte térdi, gure herritxoa utzi eta honantz abiatu nintzela, Dominikar Errepublikara. Munduko haurren eskubideen garapena helburutzat hartuta, UNICEF-ekin lan egitera etorri nintzen, eta orduandik Santo Domingon bizi naiz.

Berton proiektu bat zuzentzen dut, Haurren lagunak diren Udalerriak (Child Friendly Cities) deritzona. Proiektu hau munduko nazio askotan bultzatzen ari da UNICEF, eta bere helburua da herriz herri lan eginaz nazio guztiko haurren egoera hobetzea.

Nire lanaren helburua da agintariak konbentzitzea haurren alde lan egiteko; aurrekontuetan hezkuntza edo osasun zerbitzuetara zuzendutako gastuak gehiagotzea, herrietan haurtzaindegiak antolatzea, haurrak lanetik babestea etab. Ziur nago askok UNICEF izena entzunda segituan pentsatu duzuela egun osoa umez inguratuta egoten naizela, baina ez da horrela. Eguneko ordurik gehienak bileretan ematen ditut, alkate, zinegotzi edo gobernu kideekin berbetan.

Sarritan, bai gobernuak eta baita udalek ere, diru falta aitzakiatzat hartuta, zerbitzu sozialei zuzendutako gastuak murrizten dituzte, eta diru horiek beste gastu mota batzuei aurre egiteko erabiltzen dira haurren interes gorena ahaztuta. Edonon ikus dezakegu, eta Dominikar Errepublika barne, hezkuntzarako aurrekontuak murrizten dihoazela, eta gastu militarrek gorantz.

Honekin ez dut esan nahi errekurtsio faltarik ez dagoenik, baina diru falta baino arazo larriagoa da errekurtsioen erabilera desagokia. Alde batetik aurrekontuetako diru asko politikoen poltsikoetara desbideratzen da, eta bestetik dirurik gehiena premiari gabeko obretan gastatzen dute, honekin etekin politiko haundiagoa lortuko dutelakoan.

Lehenengo arazoa latza bada ere, honen aurka borrokatzeko

helburuarekin, kongresua eta gobernu lege eta dekretuak egiten ari dira jo eta sua nazioarteko erakundeak behartuta, eta honen emaitzak nabari dira.

Irtenbide zailagoa duen arazoa da oreka lortzea herritarrek bizi dituzten arazoak eta aurrekontuetan azaltzen diren gastuetako alorren artean. Gehienetan herriko premiak konponbide gabe geratzen dira, batzutan alkate eta zinegotzien kanpaina finantziatu duen aberatsari mesedea egin behar zaiolako, eta bestetan, uste dutelako eraikin asko inauguratzeak hurrengo hauteskundeetan botu gehiago ekarriko diela.

Gauza guzti hauek kontuan izanda, argi dago, dituzten diru-sarrereren erabilera egokia lortu behar dugula behin eta betikoz, eta hori lortzen dugunean diru laguntzak ematen hasi. Filosofia horrekin ari gara zuzentzen dudak proiektuan, eta etekinak urte hauetan nahiko onak izan dira, ehun eta hogeita udaletatik, berrogeitabosten, inbertsio aurrekontuaren %20 zerbitzu sozialetan (hezkuntza, osasuna, ura, etxebizitza...) erabiltzen dute.

Ez da lan erreza zin dagizuet, egunoro ostopoak izaten dira edonondik, eta bi pauso aurrera eta bat atzera ematen ditugun arren, fruituak hor daude, eta fruitu horiek haurren ongizatean eragiten dutela jakiteak poz ikaragarria ematen du.

Beraz lagunok kontatu dizuet hondartza politetan eguzkia hartu eta saltsa dantzatzeaz aparte, zertan ari naizen hemen. Hemen bizitzearen esperientzia oso aberasgarria da, eta horregaitik nago hemen.

Besarkada bat guztioi eta segi gogor soraluzeko barriak munduan zabaltzen.

Laister arte.

**Maider Gabilondo**



**Argitaratzailea:**

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.  
Telefona 943 75 13 04

**Zuzendaria:** Gurutze Ariznabarreta

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

**Publizitatea:** Jon Oregi eta Jon Basauri  
(943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale  
**Inprimategia:** Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid  
**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid  
**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esaneren eta iritzien erantzunkizunik.*

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA



### Erreportaia

Baina aldaketarik garrantzitsuenak eskolen jarduneko planteamentu berriak ekarriko du. Hemendik aurrera “diploma bat etartzeko aukeriaz gain, azterketa eta mailen presiñorik barik musikia ikastia nahi dabenak aukeria izango dau, hizkuntza musikala derrigorrez ikasi barik, nahi daben instrumentua belarriz jotzen ikasteko”.

**Haize berriak Musika Eskolaren barruan**

## Zorion agurrak



**Mikel Juaristi**  
Zorionak guapote!  
2002 - 5 - 26  
Ezeizu jan karamelo larregi eh! Urtebetetzeko pasteekin ez zan nahikua? Etxekuak.



**Gorka Santamaria**  
Zorionak mutiko!!!  
2002 - 6 - 11  
Segi bixi-bixi eta alai-alai Gorkatxo! Muxu haundi bat! Etxekuen partez



**Maria Azkona**  
Zorionak poxpolin!  
2002 - 6 - 2  
Ia noiz ekartzen ditzuzun pastatxo batzuk eh!  
Pil-pileanekuen partez.



**Valeriano Madrid**  
Zorionak aitxitxa!  
2002 - 6 - 8  
Poliki poliki bagoiaz zahartzen eee Laister jubilasina. Iker eta Amaian partez.

**M<sup>a</sup> Angeles Ariznabarreta**  
Zorionak rubia!  
2002 - 6 - 6  
Gero edarragua zare andra! Txurrukeneko senidien partez



**Gorka Etxabe**  
Zorionak!  
2002 - 6 - 18  
Aupa txapeldun! Etxekuen partez.



**Enara Oinederra**  
Zorionak txikita!  
2002 - 5 - 31  
Zela ibili leike egun guztian ibiltzen zaran moduan?  
Etxekuen partez.

### ***hildakuak***

Isidro Bergaretxe  
Josefa Kortabarría  
Maria Barrutiabengoa  
Manuela Habas???????

### ***jaiotakuak***

Elena Lopez

## Agenda

### **“LAS BRUJAS” EN KONTZERTUA** Ekainaren 7xan

22:00etan Frontoian Edari barria eta ogitartekuak izango dira eta Argazki Rallyko sari banaketia be bai.  
Istitutuko Gurasoen Elkartiak Antolatuta

### **EUSKARAZ DIBERTITZEKO MANERAK** Ekainaren 7xan

22:15etan Kiroldegiko Erakusketa Aretuan  
Kultura Errotaren Barruan

### **JAIXETA KARTEL LEHIAKETIA Lanak aurkezteko azken eguna:** ekainaren 7xa

Herriko artistei zuzendua.

### **GIPUZKOAKO BOLA TXAPELKETA** San Andresen Ekainaren 8xan

### **ORGANU EMAILE MAHAIA** Ekainaren 8xan

Udaletxepean

### **MOTORZALEEN TOPAGUNEA** Ekainaren 9xan

10:00etan izen ematea

### **MENDI ASTEA DIAPOSITIBA EMANALDIXAK**

Ekainaren 10etik 14ra  
edo ekainaren 17tik 21era  
Finalista Eguna  
Ekainaren 15ian  
8:30 Txaplidu Jaurtiketa  
9:00 Atxolinera irteeria  
12:30etan Herri Kirolak  
13:00ian Ongi etorria  
13:30etan Sari banaketa eta triki eta bertsosaiua.  
14:30etan Bazkarixa (Izena emoteko mendi taldera jo).

### **EZOZIKO JAIXAK** Ekainaren 14, 15, 16xan

### **1 OHARRAK**

**Bide Mozketa**  
Ekainaren 3tik 6ra bitartean Maltzaga eta Azitain bitarteko bidezata itxita izango da, gaueko 22:00etatik goizeko 6:00ak artean. Bide mozketa honen arrazoia, zati horretan Maltzaga-Urbina autopistako lanak egin behar ditzutela da, 97 metroko altura izango duen Larreategiko biaduktua egin behar dutelako hain zuzen.


### **ZORION AGURRAK**

Zorion Agurrak Iratxo goxodendan jasotzen dittugu.  
Argitaratu ostian, berriz ere bertan berreskuratu zeinkiez lagatako argazkixak.

**Eskerrikasko**

**Javier Alonso Zelaieta**

Hortz klinika



Mediku estomatologoa  
434 zenb. kol.

Atxuri, 1 - 1. eskuma  
Tfnoa 943 75 16 13



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: etxehun@teletel.net  
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

**Kontulan Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

**Lonbide taberna**

Pintxoak  
Ardoak, kafeak eta likoreak

Errabal kalea, 9  
Tfnoa 943 75 14 07



**Zer irizten dotsazu?****Zelan ikusten dozu Pil-Pilean?**


**Nerea Isasti**  
**27 urte Kazetarixa**

Nere ustez zerbitzu on ta biharrezko bat emoten dau. Gainera, ona da euskeriandako ta hamabostian behin urtenda gaurkotasun gehixao dauka.



**Miren Uribe**  
**12 urte Ikaslia**

Ondo, ze holan herriko gauzetaz enterau geinke. Hamabostian behin urtenda gehixautan irakurtzeko aukeria daukau.



**Luis Maria Jauregi**  
**75 urte Jubilatua**

Oso ondo. Herrirako gauza ona da halako aldizkari bat eukitzia. Nik behintzat beti irakurtzen dot.



**Angel Gonzalez**  
**47 urte Obrerua**

Ez dot asko jarraitzen, baina herrirako errebista bat eukitzia ona da berriak, iritziak jakitzeko.



**Elisa Labaien**  
**64 urte Jubilatua**

Ondo dago herriko gorabeherak eta jendiak esaten dabena jakitzeko. Jentia partehartze haundixagua euki ezkeru hobeto egongo litzake.



**Aitzol Arribilaga**  
**21 urte Mekanikua.**

Ondo ikusten dot. Oin hamabostian behin urtenda hobeto egongo da herriko berrietaz eta enteratzeko.

Ugaitz Catalan eta  
Enara Agirre



**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Erreal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46



**MENDIZABAL**

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

## Balkoi Edertuen I.Lehiaketa

Debegesak (Deba Barreneko Gara-pen Ekonomikorako Elkartek), eskualdeko udalerrietako bizilagunak balkoiak ederragotzera bultzatzeko, Balkoi Edertuen I.Lehiaketa jarri du martxan. Joan zen ostiralean, lehiaketa ezagutzera eman eta Soralezetarrak partehartzera animatzeko helburuarekin, Debegesak loreak banatu zituen dohainik Plaza Berrian, lehiaketan partehartzera animatzearen truke. Oraindik ere zabalik dago lehiaketan izena emateko epea eta horretarako, ekainaren 14a aurretik 943820110 telefono zenbakira deitu behar da. Herri mailako irabazleen sariak; 100euroko balioa duen loretzaintzarako materiala erosteko 8 txartelek osatuko dituzte eta ekainaren 19an banatuko



dira. Bailarako saria berriz, nekazal-turismo batean bi pertsonendako asteburu bat eta jatetxe batean afari bat izango da eta ekainaren 21ean banatuko da. Beraz, balkoidunok, badakizue... eman izena eta edertu balkoiak!

## Batasunaren hitzaldia



Etxebizitzak: "Herrian azterketa sozioekonomiko bat egin behar da"

Batasuna alderdiak Soralezetarrak etxebizitzaren inguruan dituen proposamenak azaldu zituen joan den asteartean udaletxeko Batzar Aretoan. Horretarako, Lezoko hirigintza teknikaria gonbidatu zuten. Lezoko teknikariak, "etxebizitza beharraren arazoa" konpontzeko aukera ugari daudela azaldu zuen.

### Jose Mari Larreategiri omenaldia Arraten


Maitzaren 15ean Arraten ospatu zen San Isidro egunean, Deba Barreneko beste baserritar batzuekin batera Soralezetako Iturbearri baserriko Jose Maria Larreategi 79 urteko aitona omenaldia egin zioten. Omenaldi hau, San Isidro egunean parte hartzen duten baserritar edadetuenei egiten zaaien aitortpena da. Jose Mari, Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eta Alberto Sudepe Soralezetako alkatearen eskutik,



hiru ardo botila eta eskerronezko hitzak jaso zituen. "Bazkai edarra jan genduan da gustora!"

Egoitz Unamuno

## Organu Emaileen bila Soralezetarrak



## ALCER GIPUZKOA

Gipuzkoako ALCER elkarteak (Giltzurrun Gaixoen Elkartek) ekainean zehar organuen donazioa bultzatzeko egingo duen kanpainaren barruan, Soralezetarrak emaile egiteko aukera izan dezaten mahaia jarriko da udaletxepean ekainaren 8an. Euskadiko Organu Emaileen Erroldaren arabera, Gipuzkoan Donostialdea da 22.537 emaileekin eta biztanlegoaren %45arekin emaile kopuru handiena duen eskualdea. Deba Barrenean 4.566 organu emaile daude momentu honetan, eskualdeko biztanlego osoaren %9,3a hain zuzen. Emaile kopurua beste lurralde batzuetan baino altuagoa den arren, ez da nahikoa organu baten beharrean dauden gaixoen eskaerari erantzuteko eta hargatik kanpaina hau bultzatzen duten herritarrek dei berezia egin nahi diete Soralezetarrei, ekainaren 8an mahaira hurbildu eta organu emaile egin daitezten; "Zure bizitza ez dadila zurekin batera itzali. Eman itzazu gaur zure organoak! Zuk behar ez dituzunean beste batek bizi ahal izateko beharko ditu eta".

## ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa  
Berogailuak  
Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea  
Telefonoa: 943 75 12 41  
Sakeleko telefonoa: 639 17 96 96



**BELARZAK**  
LORADENDA ETA BELARDENDA  
EROSKETAK ETXERA DARAMATZAGU

Santa Ana, 2 behea  
Tel.: 943 75 30 11  
Eskukoia telefonoa: 646 43 90 40  
20.590 SORALUZE



## Torturaren eta atxiloketen inguruko mozioak

Maiatzaren 6an, torturen eta atxiloketen kontra Batasunak aurkeztutako bi mozio atzera bota zituen Udal Batzarrak. Batetik, "Torturaren aurkako taldea"ren mozioa, non "Estatu espainiarri bederlatzi puntutan proposatutako neurriak hartzea" eskatzen ziztaion; eta bestetik, "Batasunako kideen atxiloketaren inguruko", atxilotuak "baldintzarik gabe aske uzteko" eskaera egitea proposatzen zuena. Hauen partez, EAJ-EA koalizioak, bi mozio berri onartu zituen; bata, Udalaren "Giza Eskubide guztiekiko konpromezua" adierazten duena eta bestea, Garzonek zuzendutako operazioa "seriotasun eskasekotzat" jo eta era berean "Madrilen ETak egin dako azken atentatua gaitzesten" duena. (PSEE-PSOE eta PPko zinegotziek Udal Batzarra urzi zuten Batasunaren mozioen aurkepena hasi aurretik.)

## Alde zaharra babesteko aurreproiektua aurkeztu du Udalak

Udal Batzarrek, herriaren Alde Zaharra zaindu eta mantentzeko, Eraberritze Egitasmo berezi baten aurreproiektua argitaratu du Gipuzkoako Boletín Ofizialean, egitasmo honek eragiten dien pertsonen egoki derizkioten alegazioak aurkez ditzaten. Ondoren, arazorik ezean, aurreproiektua proiektu bihurtuko da eta urtebeteko epean aplikatu egingo da. Egitasmo honek; Kalebarren (erreka aldeko etxeak), Etxaburueta, Elizburu eta Santa Ana kalea hartzen ditu barne eta gaur egun duten itxura eta izaera mantentzea du helburu. Interesatuendako, Udaleko Pleno Aretoan daude proiektuaren inguruko mapa eta informazioa, nahi duen guztiarendako eskuragai.

## Aldaketak Kiroldegiko lanetan


Kiroldegiko lanetan aldaketak izan dira azken hilabeteotan. Alkateak adierazi duenez "Zuzendaritza teknikoa aldatzea erabaki da" Udalarekin lan jardunean izandako desadostasunengatik. Bestalde, hasierako proiektua aldatu egin da, proiektuak "izugarriko kalidadia eta zehaztasuna" izan arren, "dagan diruarekin bideragarritasun ekonomikorik ez daukalako". Orain proiektu berriak Jaurlaritzaren kalitate azterketa pasatu beharko du eta uztailearen atzenaldera proiektua lehiaketara aterako da eta "itxaropen haundixa" dago enpresa eraikitzailearen batek hartuko duen. Diputazioetik 20 milloi baino gehiagoko dirulaguntza jasotzeko itxaropena ere badagoela eta beste ezustekorik ezean, Udalak, abenduaren azkenalderako igerilekua eta frontoia zabalik izatea espero duela ere jakinarazi digu alkateak.

## Jaunartzeak



Aurten 22 neska mutikok hartu dute jaunartzea. Joan zen urtean baino 8 gaztetxo gutxiagok, jaitze tasa jeitsi delako. ZORIONAK!

## Kotxia Errekara



Joan zen maiatzaren 18an Maltzagatik Sorluzerantz zetorren auto bat, Poligonoko zubiko baranda jo eta ibaira erori zen. Zorionez, istripua gertatu zenean autoan zihozten gidariak eta bere lagunak ez zuten zauri larririk jasan eta Mendaroko hospitalean azterketa egin ostean alta eman zieten.

## Sorginen Laratzera Pil-pileanekin

Pil-pileanek antolatuta, joan zen maiatzaren 22an 50 plautxiar joan ziren Sorginen Laratza programan ikusle gisa parte hartzera. Miramonen luntx eder bat jan, programan barre pixkat egin eta txalo mordoxka jo ostean, Klaudio Landa eta Xabier Euzkitzerekin argazkitxo bat atera zuten.



Egoitz Unamuno

# Haize berriak Musika Eskolan



Musika eskolako ikasle eta irakasleak, joan zen ostegunean eskeinitako emanaldiaren ostean.

13 Urte pasatu dira Sorauluzeko Musika Eskolak lehen aldiz ateak zabaldu zituenetik. Orduetik hona egin dena "positibotzat baloratu" arren, musika eskolako guraso eta irakasleak oso kezkatuta daude azken urteetan musika eskolak izan duen ikasle eta matrikula jeitsierarekin. Horri buelta eman nahian, metodo eta bide berriak jorratzea erabaki dute. Haize berriak, musika eskolaren jarduna eta irudia eguneratu eta herriko gaztetxoak musikara erakartzeko.

## Aldaketa sakonak

Datorren ikasturterako aldaketa ugari aurrikusten dira. Dagoeneko zuzendaritza batzordea aldatu da eta lehen irakasle bakarrak zeukan ardura, hemendik aurrera irakasle talde batek hartuko du bere gain.

Alor didaktikoan ere izango dira aldaketak; 14 urte baino gehiagoko ikasleak aukera izango du instrumentua erakusten dion irakaslearengandik, musika hizkuntza ere jasotzeko, "ez deila izan; egun baten 20 minutu solfeua eta hurrengo egunian beste 20 minutu instrumentua. Solfeo irakaskuntza bere biharretara egokitzea da helburua, motibaziñua euki deizen".

Bestalde, hemendik aurrera ohiko eskolez gain, hiruhilabeteroko programazio bat ere izango da. Programa honi aurre egin eta irakasleei egitasmo berriak betetzen laguntzeko, gurasoen bat-

## Irakasleak



**Esther Conde**  
(Biolina)



**Zigor Martinez**  
(Klarinete eta saxofoia)



**Iñaki Maidagan**  
(Txirula)



**Natalia Atxa**  
(Gitarra)



**Elena Perez**  
(Txistua eta tanborila)



**Itziar Burunza**  
(Soinu eta panderoa)



**Nagore Sanz**  
(Korua, banda eta bajua)



**Mikel Markiegi**  
(Tronpeta eta tronboia)



**Lourdes Aranburu**  
(Hizkuntza musikala)

**Amaia**  
(Piano)

**Keu**  
(Gitarra elektrikua)

zordeak kultura elkarte bat sortu du. Ubane Uzin gurasoen batzarreko lehen-dakariaren hitzetan, "gurasuak prest dare, alde batetik, musika eskolia bultzatzeko eta bestetik, ekintza kulturalak antolatzeko horren barruan". Guzti honen helburua, "herrixan dagan hutsune kulturala, batez be musikala, betetzen ahalegintzia da" gurasoen ustetan.

Musika eskolaren jardun berrian, "herriko gauzetan parte hartze haundixagua" izateko helburua ere badago. "Txaranga bat be egon zan eta azkenian desegin ein zan, ba hori be bultzatu eta..." Aurten gainera, bandak jaietako tanborradan jotzea aurrikusten da eta "hori etorkizunian bandian papela sendotzeko lehenengo pausua" izango dela uste dute arduradunek. "Oinartian ez dau euki jarraipenik. Gaur egun 17 ikasle dira eta helburua da jente hori mantendu eta aktibidade berezixak egitia; irteerak, konzentraziñuak..." euren arteko giro ona sortzeko helburuarekin.

Bestalde, musika eskolak musikan jarraitzea nahi duten ikasleen gidari izan behar duela uste dute, "joteko lokala,



ikasketak egiteko tokixak nun daren...” eta horrelako gauzetan lagunduz. Sormena eta talde lana bultzatzea ere egin beharrekotzat jotzen da; quartetuak eta triuak sortu, ikasle taldiak, musika modernua eta euskal musika egin deitzen, baina ez musika eskola barruan bakarrik, ez, euren errepertoriuakin...Aurrera begira musika taldiak sortzeko zirikatzeko gehixenbat. Ze hemen neska mutiko pila bat dabiz musikia ikasten baina gero ez dabe jotzen inun, ez daukelako aukerarik”.

Baina aldaketarik garrantzitsuena eskolen jarduneko planteamentu berriak ekarriko du. Hemendik aurrera “diploma bat etartzeko aukeriaz gain, azterketa eta mailen presiñorik barik musikia ikastia nahi dabenak aukeria izango dau, hizkuntza musikala derrigorrez ikasi barik, nahi daben instrumentua belarriz jotzen ikasteko”. Aldaketa honek, solfeorik gabe, belarri hutsez eta praktikaz jotzen ikasi nahi duen jendeari aukera zabalago bat eskeintzen dio.

#### 14 Instrumentu; gitarra elektrikoa eta bajoa dira nobedade nagusiak

Musika eskolak eskeintza zabala egiten du instrumentuei dagokienez eta datorren ikasturtera begira instrumentu berriak sartzea aurrakusten da. Honakoa da musika eskolan ikasi daitezkeen instrumentuen zerrenda: pianoa, biolina, gitarra klasikoa, txistua eta danborra, soinu eta panderoa, tronboia eta tronpeta, zehar-txirula, klarineta eta saxofoia, eta datorren ikasturtetik aurrera, nobedade moduan, eskaintza eguneratu eta instrumentu hauenganako dagoen eskaerari erantzun nahian; gitarra elektrikoa (Etsaiak taldeko Keu gitarrista ezaguna izango da irakaslea) eta bajoa jotzeko eskolak ere emango dira lehen aldiz (plazak mugatuak izango dira). Honekin batera, musika eskolako bandak eta koruak ikasitakoa praktikan jarri eta jendeari azaltzeko aukera eskeiniko du.

#### Ikastaro laburrak; flamenkoa, ba-



Musika eskolako bandako ikasleak instrumentuak eskutan, irakasleari adi.

### Gitarra elektrikoan; Etsaiak taldeko Keu gitarrista ezaguna izango da irakaslea

#### teria, musika kubatarra

Instrumentu hauez gain, urtean zehar batera ikastaro bat antolatzeko asmoa ere badago. Kubatik musika talde bat omen dator Euskal Herrira eta talde honek Soraluzen ikastarotxo bat eman dezan ere ahaleginduko dira. Horrez gainera flamenko ikastarotxo bat ere antolatu nahi dute “gustoko daben jentiak musika mota hau lantzeko aukeria be izan deian”. Beste alde batetik, batera jotzeko ikastaro bat antolatzeko gogoia ere badago, “badakigu eskari haundixa daguala eta gazte askok daukela baterixia jotzen ikasteko asmua”.

#### Lokal aldetik oso mugatuta

Musika eskolak duen arazo garrantzitsuenetako bat lokalarena da. Gaur egun institutuko geletan ematen dira eskolak eta Elizan joteari utzi ziotenetik, emanaldiak “egoera duin baten” eskeintzeko aukerarik ere ez dute. Udalar

lokalen eskaria egin diote eta Udalak, beste talde batzuekin batera estazioko lantegi batera joateko eskaintza onartzea ezinezkoa egiten zaie, “txarretik txarragora ezingo gara jua. Musika eskolia ezin da hara jua”.

Momentu honetan, 4-5 urte bitarteko haurren gela bi prestatzea da lehen-tasuna “eta horretarako derrigorrez bihar dogu lekuren bat”.

#### Matrikulazio kanpaina

2.002-2.003 Ikasturterako matrikulazio kanpaina zabalik dago dagoeneko. Matrikulazio berriak bultzatzeko hainbat jarduera jarri ditu martxan musika eskolak; bisitak musika eskolara, gazte-xoenei zuzendutako joku eta emanaldi berezia...

Lehenengo Mailan (4-5-6urte) oso ikasle gutxi matrikulatu da azken urteetan eta eremu hau da bereziki musika eskolak matrikulatzera animatu nahi duena.

Matrikula egiteko epea ekainaren 21erarte dago zabalik. Matrikula fitxak jasotzeko arratsaldero institutuan.

Egoitz Unamuno



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



HNOS. BENITO  
ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**Futbola**

**Azkenean salbazioa**



Azkenean amaitu da ditxosozko denboraldia eta azkenean dena ondo irten da. Regional mailako taldeak denboraldi kaxkar baten ondoren maila mantentzea lortu du. Lehen buelta oso txarra izan zen eta talde nagusiak garaipe bat soilik lortu zuen, denbora luzez sailkapeneko azken postuetan kokatuta

egon zelarik. Gabonetan zuzendaritzak jende berria ekarri zuen eta hauen laguntzaz (Oskar Artetxe eta jokalar berriak) taldeak joko maila aldaketa izan zuen. Maila mantentzeko beharrezkoak ziren puntuak etxeko partiduetan lortu ziren, helburu hau lortzeko oso garrantzitsua izan delarik jendearen jarrera.



**Aitor Lasa**

*Sorako lehendakaria*

Amaieran denboraldixa aurrera etaratzia lortu dogu. Kadetiak denboraldi politta burutu dabe eta jubenilak mailari eustia lortu dabe. Regionalekin nahiko buruhauste izan dogu baina Artetxe eta jokalar berri batzuen laguntzaz lehen bueltan ezinezkoa zirudiena lortu da, maila mantentzia. Azken partiduetan herrixak izandako jarrera aipatzekua da, euren laguntza beharrezkua da, taldia aurrera etaratzeko..



**Koldo Heriz**

*Sorako jokalaria*

Denboraldixa nahiko kaxkarra izan da hasieran joko aldetik eta jokalar aldetik ez ginuan asmatzen eta emaitza onak ez zian heltzen. Ekipua berrixa zan eta jende nahiko gaztia ginan. Gabonak eta gero etorritako jende berrixakin taldia suspertu egin zan eta beste gogo batekin hartu ginuan azken txanpa. Azkenian asko sufritu ostian maila mantentzia lortu dogu.

**Pelota**

**Joko maila onean**

**Iñaki Jauregi txapeldunorde Tolosa-ko txapelketan**

Iñaki Jauregi Tolosako lauterdi barruan binaka jokatzen den txapelketan txapeldunorde gelditu da. Finala 22 eta 20 galdu zuen. Partidua gogorra izan zen eta emozioz betetako amaiera izan zuen.

**Erlei berriz ere frontoietan**

Azkenaldian frontoietatik kanpo egotera behartu duen lesioa gainditu du Erlei Txurrukak. Bi partidu jokatu ditu eta bere joko mailak behera egin ez duela erakutsi du garaipen garbiak lortuz, azkena 22 eta 10 irabazi du Urretxuko txapelketan.

**Muguruza sasoi onean**

Onar Muguruza txapelketa asko ari da jokatzen eta emaitza onak lortzen ere bai. Urretxu eta Añorgan Olanarekin batera eta Mutrikun lau t'erdia barruan lehen kanporaketak gainditu ditu.

**Sorpresarik ez**



Asier eta Iñakiren Omenezko Pelota txapelketak aurrera jarraitzen du eta poliki poliki, finalaurdenetara pasatuko diren bikoteak gero eta garbiago agertzen doaz. Ez dago sorpresarik, aurretik doazen bikoteetan pelotari esperimintatuak daude eta horrek erabakitzen ditu partiduak. Hirugarren jardunaldia jokatu ostean, hauek dira talde bakoitzean aurretik doazen bikoteak: 1. Taldean; Gorka Varela eta Gorka Bollar, 2. Taldean; Zigor Alberdi eta Iraultz Arluziaga, 3. Taldean; Koldo Heriz eta Haritz Sudupe eta 4. Taldean; Aitor Fernandez eta Ander Elizburu. Oraindik beste 5 jardunaldi geratzen dira finalaurdenetara pasatu aurretik eta beraz, edozer gauza gertatu liteke.


**Xuban Catalan**

# Manolo Etxabe

Euskal Jaixaren  
sortzailietako bat

“Igal etortzen ziran  
500 dantzari!  
Mugimendu haundixa  
izaten zan herrirako”

Euskal jaixaren sorrera kokatzen hasteko, ikastolen hasiera gogorra ekarri dosku gogora Manolok. Gelak han eta hemen; erregetxian, elizan, gaztetxe azpizan....ahal zan moduan moldatzen ei ziran; komunik bare ezetarako baimenik bare. Errifen bittartez, lortzen zan aurrera egitteko diru apur bat. Euskalzalien borondatez eta ekimenez jarri zan martxan ikastolia eta honekin batera euskal kulturaren mugimendua. Manolok 20 urte inguru emon dittu Euskal Jaixa antolatzen. Bada batenbat Euskal Jaixaren inguruan berba egitteko.



Manolo Etxabe euskalzale sutua izan da. Horixe erakusten dau bere ibilbidiak.

## - Noiz eta zelán hasi zan martxan lehenengo euskal jaixa?

70ian hasi ginan prestaketa lanak egitten eta 1971n plazara..Lehenengotik umiak gertau bihar izan genduzen. Maitte Gorostidi hasi zan neskeri dantzan erakusten eta Gabilondo eta Aldazabal mutileri. Bittartian, ni materixala ta bihar zebena lortzen ahalegintzen nintzan: makilak, zintzarririk,... Batzar baten andrak erabaki zebeñ zelán juan jantzitta, bai mutilak eta bai neskek.

## -Nun batzen zinien?

Sasoi hartan Batzokixa Frankoren eskuetan zeguanez, Betanian, gaztetxe beheko lokalian eitten genduzen entsaiuak.

## -Hainbeste lan eginda zelakua izan zan lehenengo euskal jai haura?

Kostata baina ein genduan lehenengo euskal jaixa.Eta izan zan pentzau leikian desastrerik haundixena...eurixa ein!!!! Haura zan eurixa ein!! baina ein ta ein!!! Hala, Sesma frontoian ein bihar izan zan lehenengo euskal jaixa, 300 bat umekin.

## -Hortik aurrerako bidia zein izan zan?

Gero urte pare batera Juanito Urresti, Jose Luis Mendizabal eta hirurok, Bergaran euskal jairik eitten ez zebela eta hangua antolatzera juan ginan.

Hemen berriz, urtero ein biharreko lanak zerak izaten zian: zenbat ume ze-

“70ian hasi ginan prestaketa lanak egitten eta 1971n plazara. Desastre bat izan zan!”

tozen lotu, deitu batera eta bestera, harek nun eta zela sartu. Igual etortzen ziran 500 dantzari! Mugimendu haundixa izaten zan herrirako baina danak sartzen ziran etxietan. Jentian zerrendak eukitzen genduzen eta handik eitten genduan banaketia.

## -Badago bereziki goguan daukazu talderik?

Talderik onena, neretako izan zan. Berezi berizixa. Azkoititik etorri zan talde bat.22 neska-mutiko inguru etorri ziran soinuá jotera plazara..Benetan ikusgarrixa izan zan.

## -Zela antolatzen zenduen eguna bera?

Goizian txistularixak, gero goiko frontoira juan frontoiko paretian zenbakixak jarri eta taldiak antolatu. Meza ostian kalejiria eitten genduan. Gero dantzán ein eta bazkaltzera! Oso polita eta alaixa izaten zan eguna.

Dirua etartzeko tabernatxo bat jartzen genduan oin lotua saltzen daben lokalian eta han be borondate on danakin ibiltzen ginan lanian.

## -Zenbat denbora emon dozu zeregin honetan?

Gure helburu nagusixa ikastola sen-

dotzia izan zan. Demasak bizi izanda kuak gara, momentu gogorak pasatu genduzen subentziñuen kontua heldu arte. Orduan emon zeban aldaketa haundixa. Ni 30 urte ingurukin hasi nintzan eta 50 urterarte ibili nintzan, agure zahartuta ixa! 20 urte inguru.

## -Jendiangan aldaketa haundixa somatu dozu?

Hasieran, ikastolia hasi zanian, danok genden elkarrí laguntzeko. Gero politika zikina sartu zan eta indarra galdueban. Danok alkarrekin ibiltzen ginanian mila bidar lan gehixao eta hobeto eitten genduan. Danok ginan abertzaliak eta danok herrixa eta euskara defenditzen genduan.

Gaur egun jentíak konpromiso gutxiao dauka. Lehen herrixan ez zeuan ezer, ez zeuan autorik be eta ,zeozen gogua zeukan jentíak eta danak ilusiño haundixakin hartzen zebeñ egun haura. Gaur egun berriz, batera eta bestera juan eta aukera asko dao. Onduen bizi dana be inori kasorik ein ez eta *ibili* eitten da!

## -Bitxikerixaren bat?

Goizian goizetik diana jotén genduan, txistularixak; Juan Jose Arrieta ta...Txistulari talde oso ona zeuan orduan hamen. Pasakailia eitten zan kalez kale eta jentia bentanetara urten eta poztu eitten zan.

Gururu

## 200 Dantzari inguru XXII. Haurren Euskal Jaira



Datorren igandean egingo da Sorailuzen XXXII. Haurren Euskal Jai. Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Antzuolako dantza taldeetako 200 haur inguru etorriko dira herrira eta kalerik kale dantza tradizionalak eskeiniko dituzte jendearen gozagarri. Euskal Jai Batzordeak jakinarazi digunez, aurten

75 haur hartuko dituzte plaentxiarrek etxeetan (“nahiko gutxi”), baina jendeak eta Udalak emandako dirulaguntza eta soziedadeek eskeinutako laguntzarekin, dantzari guztiendako tokia bilatuko dutela uste dute. Domekako egitaraua honakoa da:

## Sagardo eguna

Zapatu honetan eta Euskal Jaiari motorrak berotu asmoz, II.Sagardo Eguna egingo da Pil-pilean Kultura elkarteak antolatuta. Aurten sagardo kupalak ekarri beharrean botilatik serbituko da sagardoa, antolatzaileen esanetan “boteilakuak kalitate hobia izaten dau eta”. Sagardoa eta txorixo pintxoak

dastatuz, trikiti eta bertso artean, joan zen urtean moduan “iluntze pasa polita” eta arrakastatsua sortuko dela uste dute antolatzaileek. Sagardoaren ostean berriz, Irats trikiti taldeak estu estu lotuta, nahiz soltean dantza egiteko aukera eskeiniko du Gaztetxean. Egitaraua honakoa da:


## Lombide Eibarko Topalekun

Maria Dolores Lombide Sorailuzetar margolariak, Eibarko Topaleku aretoan erakusketa eskeini du maiatzaren 17tik 26ra. Maria Doloresek adierazi digunez, margolan asko saldu ditu Eibarren eta oso gustora dago bere lanak arrakasta handia jaso duela jendearen aldetik.

Maria Doloresek, Teresa Riera Donostiar margolari eta irakaslearekin ikasi zuen eta denborarekin bere pinturarako ahalmena lantzen joan da.



## Iriondo eibartarra garaile Margo Lehiaketan



Udaleko Kultura Sailak antolatuta, hilaren 24an Kaleko X.Margo Lehiaketa egin zen herrian. Eguraldi eskasari aurre eginez, 11 margolarik hartu zuten parte lehiaketan (“kopuru urria” antolatzaileen esanetan). Nagusien mailan Bixente Iriondo eibartarrak eskuratu zuen lehenengo saria (480 euro); “Gilako zubia gaitzat hartuta, akuarela urtsuan egindako margolanak erakusten zuen garbitasun eta koloreen kalitateagatik” hain zuzen, Maria Luisa Blasco sorailuzetarrak azaldu zigunez. Bigarren saria, Imanol Kerejeta azpeitiarrak lortu zuen (300 euro) eta hirugarrena Jose Inazio Treku debatarrak (180 euro). Sorailuzetarrei dagokienez, nagusien mailan ez zen herritarrik izan. Gaztetxoan mailan ordea, bi partehartzaile izan ziren eta biak sorailuzetarrak; Iñigo Urizar eta Katia Gustino. Maila honetan, Iñigok lortu zuen lehenengo saria (110 euro) San Martzialgo ermitaren irudiarekin eta Katiak bigarrena (90 euro) Gila zubiari buruzko margolanarekin.

Lehiaketan osatu diren margolanak ikusi nahi dituen guztiak, ekainaren 8<sup>a</sup> bitartean izango du horretarako aukera, Kiroldegiko erakusketa aretoan izango dira ikusgai eta. Bestalde, saritutako margolanak Udalean jarriko dira, “herritarren gozamenerako”. Edizio honetako epaimahaia; F.Beorlegi, J. Serrano, J.A. Larrañaga margolari eibartarrak eta M.L. Blasco margolari sorailuzetarrak osatu zuten.

Egoitz Unamuno

# Olatz Larreategi

"Egixa borobila da... benetako lagun gutxi darella"

Hogeita bi soñian, hamaika kontutuko eta hamaika kontatzeko. Sorginen Laratzera etorri da Pil-pileanekin eta sasoi betian hor dator geure jakinminan paretian gora hamaikatxo lagun aldamerera. Bi esku, baina hamaika laguneri luzatzeko... Gauza bat dago argi, doian tokira doiala.. ez jakola inori arrautzarik faltako...

## Zaletasunak?

Dantzia, musikia eta kirola.

## Koloria, lekua, erropia, abestixa, zenbakixa eta animalixia

Berdia, Hirukurutzeta, bakeruak, Izarren hautsa, 5a eta txakurra.

## Bapo geratzeko modoko bazkarixa?

Entsaladia, txuletia pipar berdiekin eta patatekin, erateko sardaua eta gainian gaztaia ta menbrillua.

## Zeri ez zenkixoke ezetik esango?

Lagun bati laguntziari.

## Munduko gauzarik garrantzitsuena?

Familixia.

## Ze eruangozinuke irla bakarti batera?

Mutila, musika tresna bat, oilarra eta oilua.

## Ameseta xelebren bat?

Umetan amesetan eitten neban hegan eitten nebala.

## Noiz, nora, zeinekin eta zertara?

Udan Alpietara mutilakin disfrutat-zera.

## Zer eruan bihar dau mendira doianak?

Oinetako onak, erropa erosua, motxilia, eratekua eta jatekua.

Buruan...mendixa bere neurrikua dan ala ez jakitzia.

## Egun zoragarrixa?

Goizian belainua dauan egun baten; mendira igo, buelta edar bat emon, dutxau, poteua eta afarixa...

## Ezin dozu jasan?

Jende hipokritia, atzetik gaizkiesaka ibiltzia...

## Bertso Begiz

*Mendizalia, ameslarixa  
eta lagun laguna.  
Familixaren maitale sutsu  
eta bihotz garbiduna.  
Euskalzalia latza  
ta genio garratza.  
Ez haiz neska finfirina!  
Zure lagunak maitte zaittugu  
ixa nobixuak aina.*

*Etxebarri*

*(Doinua: Iparragirre abila dela)*



Olatz Larreategi

## Aholkurik onena?

Egixakin jokatzia.

## Egixa borobila da...

Benetako lagun gutxi darella.

## Bitxikerixaren bat?

Lehenago kontuak dia, baina etxian ur bila zein juango zan galdetzen zebeñian ni beti nenguan prest. Eskalaten

ibiltzen ginan ba! Ta praktikau biharra zeuan ...Ur bila juaten nitzanian Ezoziko plazako paretian gora igotzen neban. Hasieran ez neban larregi igotzen, baina halakon baten konturau zian ba denbora lartxo pasatzen nebala ta hor harrapatzen nabe paretan puntan...

Gururu

**JABIER ALBERDI**

HARATEGI  
ARTISAU ERARA  
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN  
PRODUKTUETAN.



**KALITATEA**

Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32

**Instalaciones Kalebarren S.L.**




GAS INSTALAKUNTZAK  
ETA PROIEKTUAK  
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA  
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

## Argazki zaharra

# Soraluzeko dantzarixak Ezozin eta Arrasaten

Maite Gorostidik laga doskun argazki honetan, 1.973an herriko dantza taldean zebizen neska mutikuek azaltzen dira. Argi ikusten da dantza talderako afiziño haundixa zeguala orduko gaztetxuen artian. Harek bai urtiak harek!

Goiko argazkixa; 1.973ko maiatzian Ezozin egindako dantza saio baten ostian etaratakua da. Ezkerretik hasitta; Imanol Mendizabal, Xabier Leturiondo, Antton Uriarte, Lazaro Trebiño, Aitor Iñurrieta, Josu Leturiondo, Luis Jabier Oregi, Benan Oregi, Eburne Sesma, Nerea Alberdi, Maite Alberdi, Ana Jose Gallastegi, Coro Cenitagoia, Maria Jesus Iñurrieta, Aintzane Iñurrieta, Ane Etxabe, Nerea Cerrejon eta Nerea Unamuno.

Behoko argazkixa; 1973ko ekainian Arrasateko Euskal Jaixan etaratakua argazkixa. Argazki honetan azaltzen diran neska mutiko batzuk; Alexander Amor (tanborra), Iñigo Eguren, Koldo Lizarralde, Iñaki Suinaga, Rafa Oregi, Hilario Manzanedo, Jose Ramon Gomez, Miren Alberdi, Eneida Iñurrieta, Susana Oregi, Maria Feli Akizu, Elena Akizu, Ana Trebiño, Maite Unamuno, Olatz Leturiondo eta Marisa Termas. Arduradunak; Maite Gorostidi eta Jabier Gabilondo.

Egoitz Unamuno



1973



## Eukararen ajieri, sendabelarra



**Juateko bera!!!**  
GAIZKI



**Juan deila bera!!!**  
ONDO

Esaiozu juateko eta esaiozu juan deila zeharraginduak, ondo dare bixak. Baina aditz nagusixa kasu honetan, ESAN agertzen ez danian “**JUAN DEILA BERA!!**” erabili biharko dogu eta ez **JUATEKO BERA!!!**


## Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke

DEITTU  
BIZKOR BIZKOR  
943 75 13 04 ra  
Aurreko  
aleko irabazlia:  
Ander Epelde  
(deittu)



# Ugaraxo



2.002ko ekainaren 9. alea Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian  
**Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko**



5. Mailako ikasliak umoretsu, eskola moztu eta argazkia ateratzeko irrizkiz.

**B**ost. mailako ikasliok, "Txerrama errudun", Iñaki Zubeldia, 1994. urtean argitaratutako ipuina, gogo haundixakin irakurri dogu.

Ipuin honek, gosiak amorratzen bizi diran txerrama eta bere txerrikumetxuen komerixak kontatzen ditu. Honen artetik, barregarrixenak, herriko eskolako umiak txerrama eta familia, Donostiako Kontxara eruan zittuztenekua da. Kezkiakin gelditu ginan amaieria irakurri ginuan. Ai, Manuela koi-tadua!!!

Zorionez, maiatzaren 7xan, Iñaki Zubeldia bisittara etorri zanian, aukeria izan genduan

idazlia ezagutziaz gain, galdera pillia egitteko.

Berak esan zozkun, maisua zanian ez zeguala euskerako irakurgairik eta horregaittik, egin zebala ikasliendako "Unai Agintaria"; gero "Euskaldun bat Marten" moduan ezagutzen dogun liburua, eta holan hasi zala idazten.

Bere bizitzako gauzen gañian berba egin zozkun eta erregalu moduan, bere andriak mendixan topautako apixa dotore bat, ekarri zozkun.

Txerramari pasau-takuak egixak ziren ala ez galdetu zotsaunian, gauza batzuk aldatuta izan arren, bere herrixan, Ikaztegieta, ezagun-eza-



# 2

## Ugaraxo

gunak ziran txerri horren historixak zirala, eta hortik hartu zebala liburuandako ideia, esan zeban.

Beste batzuen artian, lehen aittatu dogun "Euskaldun bat Marten", "Tximu bat klinikan", "Ipuin eroa", "Maddi oporretan", "Miru eta Mara", "Nire aita ezin izan nuen salbatu", "Pako belea", "Pako belearen bihurrikeriak", "Josu Azalaren abentura", "Mirari Hegalari" eta, gaurko protagonista izan dan, "Txerrama Errudun", idatzi dittu.

Honek danak, eskolako liburutegixan daukazue:

**EZ EIZUE ALPERRIK GALDU GOZATZEKO AUKERA PAREGABE HAU!!!!**



### DENBORAPASA DENBORAPASA DENBORAPASA DENBORAPASA

\* **Palindromoak: Atzekoz aurrera ere, berdin irakurtzen direnak**

**AMA – AMAMA – ROTABATOR – AIRE ERIA – ALABA ZABALA –  
KALEKO OKELAK – ASTO HORI TO TIRO HOTSA –  
ERRE KATU PUTAK ERRE – SELES – SOLOS – SALAS – RADAR – ANILINA  
DÁBALE ARROZ A LA ZORRA EL ABAD –**

( Ondarrun esaten dan moduan)

**Neri gustatzen gaztan gazta gastau in gazta, baina gustatzen ez gaztan gazta ez gazta gastau.**

\* **Hizkuntza jolasa**

**Joxe Mari mirari, lau hanka eta bost belarri.**

**Iñaki, azak eta porruak nahasi.**

**Domingo, arrautza gorringo, gehiago burlarik ez dizut egingo.**

**Migel, saskia bete gibel, beste hainbeste birika, Migel ipurtzirika.**

**Joxe, Moxe kitarra, ahuntzek ainako bizarra, botatzen dula, botatzen dula,**

**Frantziarainoko puzkarra, rra, rra, rra!**



Maiatzean Heriz Magioa izan genuen herrian. Frontoian eskeini zuen ikuskizuna eta neska mutiko asko hurbildu gine bere jokuak ikustera.



Bertso Eskolako neska mutikoak Bergaran izan ziren Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan parte hartzen. Finala Zumarragan da, animatu!



## Nagusixak baino zer egitten dogu hobeto gaztetxuok?

### Katariñe Berrueta 10 urte

Jolastu. Nik sokasaltuan eta antxitxika amak baino hobeto egitten dot. Saskibaloian be nik baloia errezago sartzen dot.



### Imanol Rodrigex 12 urte

Nik asko ikasten dot eta nere amak gutxi. Nik ondo egitten dot dantzan eta nere aittak ez!



### Josu Arriola 11 urte

Kirolak. Nere aittak txakurrari moduan egitten dau igerixan eta nik delfinen moduan. Ni flexibiliaua naiz eta hobeto estiratzen dot eta aitta berriz zahartuta dao holako gauzak egitteko.



### Irune Varela 12 urte

Nik zihar txirula jotzen dot eta aittak kantau egitten dau baina ez daki solfeorik. Lotan be neuk egitten dot gehixen, larunbatetan 12:00xak arte lo egitten dot.



## Ikusi Makusi Zein Ikusi?



**Zein da alboko argazkian agertzen dan emakumia ?**

Zein dan baldin badakizu,  
**DEITU**

**943 75 13 04 (Pil Pilean) telefonora**  
eta emon zure erantzuna. Emon zure izen abizen eta telefonua.

Asmatu ezkerreko **liburu edar bat** irabazi ahal izango dozu.

Aurreko aleko irabazliak:  
**Katia Gustino eta Arantxa Arizaga**

**Erantzuna: Mertxe Epelde**  
**Saria IRATXO dendan eskatu**

## Esazu...(amodiozko, zorion agurrezko..... mezuak)




Plaentxiako mutil guapo, majo eta sexixeri musu handi bat guapetonez. Irune V. eta Enara. Soroluzeko tia buena danori, muxu bat ezpainetan! Josu E. eta Beñat A.. Jolasteko toki eta denbora gehixao nahi dou. ijiMigel B. eta Oier A.. Ezoziko parkian ziburu gehixao jartzia nahi dogu. Juan F. (Iosune eta Idoia). Gure lagunak maitte dittugu. Ibai, Iker, Alberto, Aritz, Iñigo, Jabi, Ander eta Juan.Plaentxiako mutil guapo, sexi, katxarro, moreno eta onenari morreo handi bat. Eider, Enara P., Nerea eta Irune. Soroluzeko neska eta mutil listuendako eta futbolari onendako. Ander M.. Jolastoki berri bat nahi dogu. Sonia, Marta, Sara eta Iñigo.



# LANDARELANDIA



Noiz bait arunak eoretzen baraitu hemen  
 sendatzeke bidea aurkitu menda landatea  
 Arunak erre disun lekuan mendaren hostoz  
 igurtzi eta abesti hau kantatu bitortean.



Menda, menda.


Senda, senda.

Arun gairtzok

errenau.

Menda, menda.

Senda, senda.



# 50.ale 1.000 bizipen piipilean

50.alearen gehigarri berezia 2.000ko maiatzaren 31a



**Zorionak Soraluze!!!**

# Pil-pilean 50 ALE 1.000BIZIPEN Soraluzen

“KAIXO LAGUN:

Jaio berri duzuen aldizkari honek, Soraluzeko euskalzaileon lagun izan nahiko luke lehenengo momentutik.

Gure herrian gertatzen direnak azaltzea da nire helburua, euskaraz azaldu ere, dau den saltsa-maltsa guztien erakusgai simple eta zabala izanik.

Horretarako naukazue hemen, lehendabiziko alea izanik, herriko hainbat ekintza, elkarrizketa berezi, taldeen berri eta abarreko- ei buruz berriak ematen.

Zabala izan nahi dut, denon ahotsa entzuteko aukera eman eta gertatzen denaren erakusgarri bilakatu. Baina horretarako denon partehartzea ezinbestekoa izango zait, herrian zehar dauden “buzoietan” zuen ekarpe- nak jasoko ditudalarik.

Ale bakoitzean herriko talde edota era- kunde batzuen berri eman nahi genuke, txan- daka eta poliki poliki denak ezagunak egin daitezen.

Euskararen erabilpena bultzatuz eta herri- ko “saltsak” pil-pilean jarritz, Soraluze berpizten saiatuko naiz zuen guztion lagunt- zaz.”

1.996 ko Urtarrilaren 27an atera zen Pil- pileanen 1. alearen sarrerako idatzia da goi- koa. Idatzi horrek laburbiltzen du Pil-pilean- en izatearen arrazoia, baita gaur egun ere. Ordu- tik ona 6 urte eta 4 hilabete igaro dira eta aldizkariak pil-pilean jarraitzen du, seku- la baino goxoago. Badira zenbait alor herri aldizkari baten garrantzi berezia izaten duten- ak, honako horietako batzuk jarraian:

## Zergatik euskeraz?

Gezurra badirudi ere, oraindik ere jende mordo- xkak galdetzen digu zergatik ez dugun aldizkari- an gazteleraz ere idazten. Ez dago dudarik, errazena erdaraz ere idaztea litzate- ke. Baina errazena ez da beti biderik egokie- na eta kasu honetan erdaraz idatziko bagenu erdaldu- nek ez lukete euskeraz jakiteko beharrik sentituko eta hortaz ez lukete ikasiko. Pil-pileanek euskara normalizatze- ko helburuarekin dihardu lanean, etorkizunean euska- rak bere lekua irabazi dezan, belaunaldi berri- rik euskeraz bizi daitekeela ikusi deza

## KRONOLOGIA ETA ALDAKETAK

Sortu zenetik gaur arte, Pil-pilean garatzen joan da alderdi guztietan. Hona hemen aldaketak denboran zehar kokatuta:

### ·Aleak

·Pil-pileanen 1engo zenbakia  
1.996ko urtarrialaren 27an

### ·Lokala

1.996ko urtarrietik 1.997ko iraile- rarte AEKren egoitzan.

1.997ko irailetik 2.002ko maiatze- rarte Maisuen Etxeko barreneko pisuan  
2.002a amaitu aurretik beste egoit- za batera mugituko gara.

### ·Ale kopurua eta banaketa

1.996ko urtarrietik 1.997ko mart- xorarte Plaza Barrixan 300-500 ale  
1.997ko martxotik 2.000ko azaro- rarte Pil-pileaneko kideak 1.000-1.500 ale

2.000ko azarotik 2.002ko maiatze- rarte Bertso eskolako ikasleak 1.850 ale

### ·Antolaketa

1.996tik 2.000. urteko irailerarte asanblarioa eta lan dena borondate hut- sezkoa.

1.999ko martxotik aurrera maketat- zailea hartzen da “soldapean”.

2.000ko irailetik aurrera koordinat- zailea eta publizista ere “soldapean”.

2.001ko Urtarrietik aurrera kazeta- ria “soldapean”.

### ·Publizitatea

1.996ko abendutik (4. Alea) 2.002ko maiatzerarte. 78 Denda eta enpresak bai- no gehiagok.

### ·Maiztasuna

1.996ko urtarrietik lauhilabetekari



### ·Iñaki eta Gorka euskalzaile nekazekin izan dira aldizkari ainarri nagusienetariok.

1.996ko abendura.

1.996ko abendutik 1.999ko ekainera hiruhilabetekari.

1.999ko ekainetik 2.002ko urtariler- a hilabetekari.

2.002 otsaitetik 2.002ko maiatzerarte hamabostekari.

### ·Maketazioa

1.996ko urtarrietik irailerarte Giller- mo Ezenarro

1.996ko irailetik 1.999ko urrirarte Gorka Prieto.

1.999ko urritik 2.000ko urtariler- a Sabin mendizabal.

2.000ko urtarrietik 2.002ko maiat- zerarte Aitor Madrid

### ·Inprenta

1.996ko urtarrietik irailerarte (lehen 3 aleak) Donostiako AEKn.

1.996ko irailetik 1.997ko apirilerarte (4-5 aleak) FastPrint Inprimategian (Ei- bar).

1.997ko martxotik 1.999ko irailerarte K3 Inprimategian (Bergara).

1.999ko iraila 2.002ko maiatzerarte Gertu Inprimategian (Oñati).

### ·Hamabostekaria Soraluzen?

Ba bai. Konturatuko zineten bada- zer kontatua Soraluzen ere. Pil-pilean h- tekaria zenean zabalagoa zen eta ed- atenporalagoak ziren.

Guk azkartasunaren eta sakontasu- apostua egin dugu eta orain lehen bain- korrago eta zehatzago kontatzen ditug- rriak eta gehiago. Beharbada, oraingo- kiak eta sailak serioagoak dira eta erro- zismoan galdu egin dugu...behabada b-

### ·Politikan; hanka puntetan

Herri santu honetan badakigu; alde- koa ez dena bestekoa dela. Gure kasua- zuetan eta batzuk, alde batekoak gare-

“orain lehen baino bizkorra- go eta zehatzago kontatzen ditugu berriak eta gehiago”

ten...Pagadi bat nahi badugu pagoa erein behar dugu eta ez piñua. Pagoari zaindu eta hazten lagundu behar diogu. Pagoak denbora asko behar du hazten baina gero... gero zela- ko gerizpe edarra ematen duen eh! Euskara pagadi eder bat izango da piñadiz inguratuta! Begiratu mendira eta atera kontuak zela gau- den!

# Gurutze: “Loiolako kuartelian soldauskia egitten zeguan “lagun” batek maketatzen zeban Pil-pilean”

AEK irakasle lanetan zihardutela Pil-pileanen sortzaile eta bultzatzaile izan ziren Maite Etxeberria eta Gurutze Ariznabarreta gonbidatu ditugu. Bi euskalzale nekaezin hauek, barru barrutik bizi izan dute aldizkariaren garapena eta ongi dakite aldizkariaren nondik norakoen berri:

**Pil-pilean- Zein izan zan Pil-pilean herri aldizkarixa sortzeko arrazoia?**

Maite- Herrixan hutsune bat zeguan informaziño eta euskaran aldetik eta hutsune hori betetzearren hasi ginan AEKtik aldizkarixa etaratzen.

**Pil- Ze baliabide zeguan hasieran?**

G- Ezebez. Ordenadorerik ezeguan ez eskuz egitten zan testua eta Loiolako kuartelian soldauskia egitten zeguan “lagun” batek maketatzen zeban hango ordenadorian. Balekixe eh?

M- Orrixetan argazkixendako hutsuniak etortzen ziran eta guk pegau eitten genduzen argazkixak hutsunietan. Gero orrixak hartu eta Donostiako AEKra eruaten genduzen kopixak etaratze-  
ra. Gero kopixak ekarri eta AEKko ikasliak ordenatzen zittuzten. Gero banaka banaka grapau.

**Pil- Zenbat ale etaratzen ziran orduan?**

G- 500 Bat ale. 4 Hilabetero.

M- Orduan aliak Plaza Barrixan banatzen ziran. Eskura.

**Pil- Jentian partetik ze harrera jaso zeban?**

G- Izugarri ona. Ale danak banatzen ziran.

M- Jentia desiatzen egoten zan gu Plaza Barrixan azaltzeko.

**Pil- Noiz banatu zan Pil-pilean AEKtik?**

G- Guk oso argi genkan aldizkarixa AEKtik independentia izan bihar zala. Hasieran AEKk bultzatu bihar zebala baina gero Pil-pileanek bere bidia egin bihar zebala.

M- Bai eta halaxe izan da. 1996ko azaruan deialdi bat egin zan eta gure sorpresarako 20 bat lagun azaldu ziran. Bilera hare-



**Maite Etxeberria eta Gurutze Ariznabarreta dira Pil-pileanen sortzaileetako bi. Pil-pileanek asko zor die bi emakume hauei.** tan lan taldea osatu zan eta handik sortu zan (zorionez) oingo errelebuaren oinarrixa.ela ikusten dozue aldizkarixa?

**Pil- Zela ikusten dozue aldizkarixa gaur egun?**

M- Oso ondo. Oin gainera ez dot jakitzen zer datorren ale ba-koitzian eta gustora irakurtzen dot. Barruan zarenian, zeuk idaz-ten dozunian ez dozu gustora irakurtzen.

G- Nik oindio jarraitzen dot idazten baina oso gustora irakurtzen dot. Asko hobetu da, gaurkotasun, sakontasun eta gaixen au-keraketaren aldetik. Maiztasunian be, hamabostetik behin etaratze-  
ra heldu gara. Zeinek esan hasi ginanian honaino helduko gi-  
nanik. Lan gogorra da eta zoritxarrez lan-baldintza oso kaxkarre-  
tan baina poliki poliki hobetzen juango da, horretan ez daukat du-  
darik.

ten digute eta beste batzuetan, beste bat-  
zuek, beste aldekoak garela. Ez da harriz-  
zekoa; Euskal Herria noria bat dela diote-  
nek arrazoi osoa dute. Nahaste horren er-  
dian gaude gu, eta ez da beti erreza izaten,  
“neutrala” ez baina “objektiboa” izaten.  
Hemen alde bakoitzak bere erara kontat-  
zen ditu gauzak eta guri “egia” kontatzea  
tokatzen zaigunez, ez daukagu lan edarra.  
Baina tira, moldatzen gara. Batzuetan  
hanka puntetan, hurrengo berriz leporaino  
urez, ahalik eta aldizkari inpartzialena at-  
eratzen saiatzen gara. Horixe da gure egin-  
beharra.

**Dabilenari pasatzen jakoz**

Pil-pileanen ibilbidean, argitalpen  
guztietan bezala, izan dira akatsak, eta  
hankasartze latzak ere bai. Zuzentzailean  
begiek ez dute beti dena harrapatzerik  
izaten eta...; hildakoak eta jaiotakoak al-  
derantziz joan izan dira, ezkonberriak ere  
jarri genituen hildakoetan (ezkonbizitza  
gogorra da baina ez horrenbesterako), pe-  
sako ordutegiak ere aldrebestu ziren (ba-  
tek baino gehiagok harrapatu izan bagin-  
tu...), zorion agurretan ere egin ditugu ga-

**“2.000 Argazki baino gehia-  
go eta 6 urtetan herrian ger-  
tatu denaren informazio  
idatzia, bada zerbait!”.**

lantak; batoren argazkia eta bestearen ize-  
na... eta beste mila horrelako. Zorionez,  
eta guk dakigula, jendeak umorez hartu  
izan ditu hankasartze larri hauek eta behin  
baino gehiagotan esan izan digute “dabi-  
lenari pasatzen jakoz holako gauzak”.

**Balio historiko izugarria**

Ez dakigu inor konturatu den baina gu  
konturatu gara, Pil-pilean izugarriko ba-  
lorea duen informazio artxiboa osatzen ari  
da. 2.000 Argazki baino gehiago eta 6 ur-  
tetan herrian gertatu denaren informazio  
idatzia, bada zerbait. Aurrera ere zakua  
betetzen joango da. Oraingoz, Pil-pilea-  
nen ale guztiak (50aleak) batzen dituzten  
kuadernoak liburutegira eramango ditugu,  
nahi duenak Soraluzen gertatu denaren  
berri kontsultatzeko aukera izan dezan.



**Uztailaren hasierarako Pil-pileanen 50 aleak liburutegian izango dituzu.**

# 55 LAGUN , 210 BAZKIDE, 75 HARPIDEDUN ETA 76 IRAGARLE. BADA ZERBAIT! ESKERRIKASKO!

Errez esaten da. Jende eta elkarre asko parte hartu dute eta hartzen dute Pil-pilean aldizkarian, horiek gabe ezinezkoa litzateke egin dugun bidea egitea:

Hau da Pil-pilean aldizkarian era batera edo bestera parte hartu duten pertsonen zerrenda:

**Pil-pileanen lankide izan diranak:** Monica Sarmentero, Ainhoa Sarmentero, Monica Carmoña, Olga Lozano, Aitor Gabilondo, Maite Elizburu, Ohiana Garitano, Ainhoa Artolazabal, Maitane Maiztegi, Leticia Alvarez, Larraitz Lacuesta, Nagore Sanz, Mikel Gartzia, Izaskun Gartzia, Sabin Mendizabal, Loiola Madera, Juan Alberdi, Bittor Trebiño, Ander Epelde, Pedro Deza, Aitziber Gantxegi, Oskar Elizburu, Xuban Katalan, Ugaitz Katalan, Jon Basauri, Arianne Unamuno, Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gorka Salaberria, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Uba-



**Borondate ona, ahalegina eta lagun talde on bat. Horixe da Pil-pileanek aurrera egiteko daukan sekretua.**

ne Madera, Gurutze Ariznabarreta, Guillermo Ezenarro, Elene Alberdi, Joserra Gomez, Egoitz Unamuno, Iñaki Alberdi, Amaia Agirre, Gorka Prieto, Maite Etxeberria eta Eduardo Pombar.

**Pil-pileanen kolaboratzaile eta laguntzaileak:** Ramiro Larrañaga, Nikolas Mendia, Mikel Santiago, Mikel Leunda, Mari Karmen Larrañaga, Ander Epelde, Bittor Trebiño, Jone Ariznabarreta, Unai Larreategi, Nerea Isasti, Irati Aldazabal, Iñaki Iñarra eta Iratxo Goxodendakuak.

**Pil-pileanen 210 bazkide eta iragarkiak jarri eta jartzen dituzuen denda eta enpresoi :**

**ESKERRIKASKO BIHOTZ BIHOTZEZ! ZUEK GABE EZINEZKUA LITZAKE PIL-PILEAN!**

## Etorkizuna +

Ondo dago atzera begiratzea, "atzeak erakusten du aurrea zela dantzatu". Esaera zaharrak egia dio baina aurrera ere begiratu behar da eta ez begiratu bakarrik. Pil-pilean herri aldizkariak erronka haundiak ditu begibistan:

### Lan baldintzen hobekuntza

Ganorazko zerbaite egingo bada, ezinbestekoa da lanean jarduteko baldintza minimo batzuk lortzea. Aldizkariaren lan bolumena handia da eta dagoeneko ez da nahikoa borondatezko dedikazioarekin. Pil-pileani "profesionaltasun" maila duin bat lortzeko beharra iritsi zaio. Aldizkariak egonkortasun minimo bat behar du, langilegoaren egoeraren aldetik eta hori lortzeko, finantziario bide berriak aurkitu eta lehengoak gehiago landu beharko ditugu; publizitatea, bazkideak, instituzioak, bestelako produktuak...

### Teknologia berriak

Internetak komunikabide tresna moduan gora doan neurrian, informazioaren munduan aurrera egin nahi duenak egoera berri horretara egokitu beharra dauka. Jendeak egunkariak interneten bitartez irakurtzen baditu, Pil-pileanek interneten egon beharko du, One Line. Eta halaxe



**Egoitz Unamuno. Pil-pilean aldizkariako arduraduna.**

izango da. Laster Pil-pilean internetean izango da irakurgai Euskal Herriko beste herri aldizkari gehienekin batera. Herri aldizkariaren Topagunearen bitartez lortuko dugu hori, urtea amaitu baino lehen Pil-pilean formatu digitalean ere irakurri ahal izango dugu (ez da broma).

Internetek aukera asko eskeintzen ditu eta horietako bat azkartasuna da. Erreza da asmatzea, komunikabide batendako informazioa jaso eta kaleratzeko behar duen denboran dagoela arrakastaren gakoa. Interneten nahi bezin azkar kaleratu daiteke informazioa, momentuan bertan eta gainera oso merke, papelezko formatuarekin alderatzen badugu. Beraz, etorkizuna ORAINKARIA da, gertakizuna momentuan bertan kontatzea. Etorriko da.

**Helburua; euskarazko kalitatezko produktu bat eskeintzea**

Herri informazioaren kasuan erdal aldizkariak dira euskarazkoei ur urretik, baina oraingoz atzetik jarraitzen dietenak. Baina ez da lasai egoteko moduko egoera, orain aldeko dugun egoerak denbora gutxian hartu dezake-eta buelta.

Hurbileko informazioa urrea da, eta herri aldizkariak urte mehatze hori kudeatzen asmatzen badute, euskaraz leku bat izango du "informazioaren gizartean". Ez badute asmatzen, erdarak horrebestekostata lortu duen tokia kenduko dio euskarari.

Mehatze hori kudeatzeko ahaleginaren adibide bat da Debagoienako Goiena egitasmoa. Eskualdeko herrietako aldizkariak bat egin eta herrietako informazioa lantzeaz gain eskualdekoa ere eskeintzea lortu dute Goienkaria astekariaren bitartez. Deba Barrenan ere etorriko beharko du horrelako zerbaitek.

Gure lana beraz, kalitatezko produktu bat eskeintzea da, hurbilekoa, erakargarria, edukiari garrantzia ematen diona...hori da bidea. Guk etorkizuna euskaraz nahi dugu, soraluzetarrei Soraluzen gertatu dena euskaraz kontatu nahi diegu.

Guk kalitate handiko zerbitzu bat eskeintzen badugu eta herriak aldizkaria babesten badu, Soraluzek herri aldizkari sendo bat izango du; euskarazkoa eta kalitatezkoa. Eta soraluzetarrek euskaraz irakurriko dituzte euren herriko berriak. Hori lortzea denon eskuetan dago!

**FER. S.A.**  
**Industriak**


*Eskulanetarako tresnak*

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

**Juan Mari**  
*Arraindegia*

*Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak*


Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



**Kiru**  
**Muntaiak**

Blas Elizburu Kortabarria  
Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



**Limpiezas  
industriales**

**Limpiezas**

**Trejo, S.L.**

Rekalde, 30 behea  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SORALUZE

## III. Kantu Afarixa 2.002



100 Afaltiar baino gehixao batu ginan 2.002ko III. Kantu Afarixan. Amodio gutunen sari banaketia egin zan; Irati Trebiñok lortu zeban 1. Sarixa eta Arianne Unamuno 2.a. Pernando (Egoitz Unamuno) eta Pernanda (Alazne Garitano) be aukeratu ziran. Kantu herrikoiak kantatuz eta dantzan gau giro zoragarrixa sortu zan. Eskerrikasko eta ZORIONAK!

# ELGOIBAR B.H. Institutua 2002/2003



Arregitorre, 2  
Tel. 943 74 80 19  
Faxa. 943 74 82 30  
E-posta: bulegoa@elgoibar.hezitek.net

## ERDI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK

(A eta D eredua)

Merkataritza  
Ibilgailuen Elektromekanika  
Karrozeria  
Erizaintza Laguntza Osagarriak

## GOI MAILAKO HEZKUNTZ ZIKLOAK

(A eta D eredua)

Administrazioa eta Finantzak  
Automozioa  
Ingurugiro Osasuna

**AURREMATRIKULA EPEA: ekainaren 3etik 12ra arte**

**600 ikasle inguru** beraien etorkizuna jorratzen · **Azpiegitura teknologiko aurreratua.**  
Etorkizunerako prestakuntza ziurtatuz · **ISO 9002 kalitate ziurtagiria.** Prozedura garden eta kontrolatuak · **80 lizentziatu, ingeniari edo diplomatu.** Unibertsitate eta goi mailako zikloetarako **prestakuntza zuzena** · **Lanpostua berehala lortzeko aukera** · **Lanbide heziketako sare integraleko partaidea.**



Peugeot 307. Ez da zenbaki bat bakarrik  
2002 urteko autoa da Europan



Ze puntutaraino izan dezakezu konfidantza auto batekin? Punturik goreneneraino. Batu eta irabazi egin dugu. 6 Airbag (aurreko inteligente 2, alboko bi eta kortina moduko sabaiko bi, aurreko eta atzeko bidaiariendako) eta ABSez gainera, zure eskura jartzen ditugu segurtasuneko elementurik aurreratuenak:

EVA (larritasunezko frenatuendako laguntza), REF (frenatuaren banaketa elektronikoa), ECS (garondoko lesioen aurkako babes sistema), oiñ-jartzeko aktiboa,

Norabide habe atzeragarria eta ESP (orekaren kontrol dinamikoa). Xehetasun eta kontrol osoa.

## ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22  
Tel.: 943 20 09 66  
EIBAR

